

NEUROZIENTZIAREN ARLOKO DOKTOREGO AURREKO BEKAK 2021 TATIANA PÉREZ DE GUZMÁN EL BUENO FUNDAZIOA

Diru laguntzen ezaugarriak:

Urtebeteko 5 kontratu emango dira, eta gehienez ere 4 urtera arte luzatu ahalko dira. Bekaren bidez, urteroko 23.700 euro gordin emango dira, lehengo eta bigarren urteetan; eta, 24.700 eta 27.500 euro hirugarren eta laugarren urteetan, hurrenez hurren. Dirua bekadunari ordaintzeko eta harrera unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko erabiliko da.

Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak:

- Espainiar nazionalitatea izatea.
- 2020ko uztailean Espainiako unibertsitate bateko doktorego programa ofizial batera sartzeko eskakizunak betetzen dituztela frogatzea.
- Ingelesaren ezagutza frogatu, mintzatuz zein idatziz.
- UPV/EHUko sail edo institutu batean onartuak izan direla frogatzea.

GARRANTZITSUA: UPV/EHUK bertako sail edo institutu batekin bat egiteko asmoa duten hautagaien eskaerak bakarrik abalatuko ditu.

Zuzendariek bete beharreko baldintzak:

Tesia zuzentzeko hautagaien baldintza hauek bete behar dituzte eskaerak aurkeztean eta laguntzak irauten duen aldi osoan:

- Doktore titulua izatea
- UPV/EHUrekin funtzionario lotura eduki edo lan kontratuduna izatea edo CSIC-UPV/EHU ikergune mistoetako ikerketa eskaletakoa izatea. Tesi zuzendariek kontratu lotura izan behar dute eskaera aurkeztean eta bekak iraun bitartean.
- 99/2011 EDk araututako UPV/EHUren doktorego programa bateko irakasle izatea. Esteka honetan kontsulta daiteke UPV/EHUko doktorego programetako irakasleen zerrenda: <https://www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

GARRANTZITSUA: ez die bermerik emango baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerei.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Hautagaiak bidali behar dio bere eskaera Fundazioari mezu elektronikoko bat idatzita helbide honetara: becas.neurociencia@fundaciontatanapgb.org **2021eko uztailearen 23ra arteko epea (egun hori barne)** izango du horretarako.

GARRANTZITSUA: Fundazioak ez du onartuko eskaera osatugabeak konpon daitezkeenik eta

eskaerok zuzenean baztertuko dira.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko, eskatzaileek **"Eskaera"** agiria guztiz beteta bidali beharko dute helbide honetara (eskatzailearen eta tesi zuzendariaren sinadurak barne): pre-postdoc.dgi@ehu.eus. Mezuaren gaiari **"Tatiana behak: Neurozientzia"** aipatu beharko dute, eta **2021eko uztailaren 16ra arteko epea** izango dute horretarako.

Egun horretatik aurrera ezingo da bermatu Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura garaiz lortuko dela.

Eskaera aurkeztutakoan, hautagaiak dokumentazio guztia bidali behar du, berori artxibatzeko, helbide honetara: pre-postdoc.dgi@ehu.eus.

Harremanetarako:

Kontsultaren bat egiteko, deitu 91.444.33.41 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara: becas.neurociencia@fundaciontatianapgb.org.

Informazio gehiago:

<https://fundaciontatianapgb.org/convocatorias/becas-investigacion/convocatoria-de-becas-predocales-en-neurociencia-2021/>